

# Ahots-Joskerarako Sarrera


ATZERA BEGIRADA BAT BOTAZ, **EGIA ITSUSI** BATEKIN EGITEN DUGU TOPO:

MUNDUAREN HISTORIAN ZEHAR  
PENA MEREZI DUEN MUSIKA  
**ASKO ETA ASKO** EGIN DA...

HILABETE HAUETAN LANDU  
DEZAKEGUNA BAINO  
**ASKOZ** GEHIAGO.

EZINEZKOA DENEZ DEN-DENA LANTZEA, **HIZKUNTZA MUSIKAL ZEHATZ** BAT AUKERATU BEHAR DUGU SAKONTAZUNEZ IKASTEKO.

HAS GAITEZEN DENBORA TARTEA **GARAI KLASIKORA** MURRIZTUZ:



GARAI KLASIKOA DERITZOGUNA **BARROKO, KLASIZISMO ETA ERROMANTIZISMO** ALDIETAKO MUSIKAK OSATZEN DU; BAI **EUROPAN**, BAI **AMERIKAN**. KALEKO HIZKUNTZAN MUSIKA KLASIKOA HIRU ALDI HAUETAKO EDOZEIN KONPOSIZIO DESKRIBATZEKO ERABILTZEN DEN ARREN ZUZENAGOA LITZATEKE KLASIZISMOKO MUSIKA BAKARRIK DESKRIBATZEKO ERABILTZEA.

ENTZUN DITZAKEZUN KONTZERTUETAN JOTZEN DIREN KONPOSIZIO GEHIENAK GARAI HONETAKOAK DIRA, MEREZI DU ZERBAIT IKASTEA...

BAINA, NAHIZ ETA HISTORIAKO DENBORA PARTE BATERA MUGATU... MUSIKA ASKO IZATEN JARRAITZEN DU. BADAGO HASTEKO ERABILI DEZAKEGUN **ESTILO ESANGURATZUEN** BAT?

... GAINERA, GAUR EGUNGO MUSIKA-ESTILO **EZAGUNEN** OINARRI DA.

**LAU AHOTSEKO KORALAK** INTERESGARRIA EGITEN DUTEN **HAINBAT ARRAZOI** DITU:

KORALEK **ERRITMO HARMONIKO** BIZKORRA DUTE; AKORDE PILA DENBORA GUTXIAN.

GARAI KLASIKO OSOKO MUSIKA PORTZENTAI HANDI BAT **LAU AHOTSEKO KONTRAPHUNTURA** SINPLIFIKATU DAITEKE.

**J.-S. BACH-EN KANTATA** ASKO DITUGU, LAU AHOTSETARA ETA MODU KOHERENTEAN IDATZITAKO KONPOSIZIOAK.

**MARTIN LUTHER**-EK ELIZA KATOLIKOARI PROPOSATUTAKO ALDAKETETAKO BAT **ELIZTARREN** PARTEHARTZEA, **ELIZ KANTUAK ABESTUZ**, BAIMENTZEA IZAN ZEN.

NOSKI, HORREN ONDORIOA LUTHER **HEREJETZAT JOTZEA** IZAN ZEN. HORI DELA ETA BERE **ELIZA PROPIOA** SORTHU ZUEN, BERE IDEIAK APLIKATU AHAL IZATEKO.

BERREHUN URTE GEROAGO, **J. S. BACH LEIPZIG- EKO (ALEMANIA) SANTO TOMAS** ELIZAKO MUSIKA ZUZENDARI HAUTATU ZUTEN ETA LUTHER-REN IDEIAK JARRAITUZ **BOST URTE OSOZ** JO DAITEZKEEN **KANTU LITURGIAKOAK** IDATZI ZITHEN.

LAN HAUETAKO BAKOITZA, **KANTATA** BEZALA EZAGUTZEN DENA, **HIMNO BATEN MELODIA** HARTU ETA **LAU AHOTSETARA** HARMONIZATUZ EGINDA DAGO.

BACH-EN KANTATAK AZTERTUZ, LAU AHOTSETARA KONPOSATZEKO **"ARAU" MULTZO** BAT LORTU DEZAKEGU, SAKONTASUNEZ IKASI AHAL IZATEKO.